




Lan-baldintzek eragindako gaitz muskulu eskeletikoak

Ezagutu ekiditeko

Enpresa guztietan daude langilearentzat arriskutsuak izan daitezkeen lan-baldintzak. Gehienetan, baina ez beti, karga fisikoarekin lotzen diren lan-baldintzek gaitz muskuloeskeletikoak eragin ditzakete, batez ere, artikulazioei eta muskulu-ehunari eragiten dietenak.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak adierazi du horrelako gaitzak laneko gaitz ohikoenak direla, zuzenean lotzen ditu luzaroan eserita edo zutik egotearekin, lan-erritmoekin, kargen manipulazioarekin, jarrera behartuekin, bibrazioekin, etenaldirik ez egitearekin edo mugimendu errepikakorrekina.

Agentziaren arabera, badira gaitz muskuloeskeletikoak sor ditzaketen faktore psikosozialak ere, hala nola laneko autonomia txikia, lanaldien luzapena, jazarpena, txandako lana edo laneko atsekabea.

Gaitz horien barruan sartzen diren gaixotasun ohikoenetako batzuk hauek dira: tunel karpianoaren sindromea, epikondilitisa, lunbalgiak, tendinitisa, tenosinobitisa edo zerbikalgia.

Langileen segurtasunerako eta osasunerako beste edozein arrisku dagoenean bezala, enpresek arriskuen ebaluazio bat egin behar dute, zein lan-baldintzek sortzen dituzten eta langileei nola eragin diezaieketen jakiteko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO



CC OO

euskadiko langile komisioak

Arriskuen ebaluazio horretatik eratorri behar da prebentzio neurrien plangintza, azken helburua baita osasunari kalterik ez eragitea. Bai ebaluazioa, bai neurrien aplikazioa langileen legezko ordezkarien parte-hartzearekin egin behar dira nahitaez.

Esaterako, etenaldiak edo atsedenaldiak, erritmoak eta lan-karga murriztea, ekipoak eta erremintak mantentzea edo aldatzea, espazioak diseinatzea, lanpostua pertsonari egokitzea edo ingurune psikosoziala hobetzea izan daitezke prebentzio neurriak.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko egungo legeriak ezartzen du, nahitaezkoa dela enpresek osasunaren zaintzan besteak beste, gaitz muskulueskeletikoak ere aintzat hartzea. Osasun zaintza horretaz arduratzen diren prebentzio zerbitzuek aplikatu beharreko protokolo mediko espezifikoak daude, hala nola mugimendu errepikakorrek daudenean, jarrera behartuak edo kargak eskuz manipulatzeko direnean.

Horietan, diagnostiko bat egiteko proba medikoak ezartzen dira. Osasunaren zaintza, berez, prebentzio neurri bat da; izan ere, diagnostikoa lehenbailehen egin behar da, norbaiten osasun egoerak okerrera egin ez dezan edo pertsona batek dituen gaitzek lan baldintza berdinak edo antzekoak dituzten beste gaitz batzuei eragin ez diezaieten.

Enpresak neurri horiek betetzen ez baditu, salaketa jartzea beharrezkoa izango da, Osalan edo Lan Ikuskaritzan. Horretarako, beharrezkoa da lehenbailehen sindikatuarekin harremanetan jartzea.

CCOO sindikatutik uste dugu beharrezkoa dela gaitz muskulueskeletikoak genero ikuspegiarekin aztertzea. Gaitz hauek oso bereizgarriak direlako emakumeen presentzia handia duten sektoreetan, batez ere zaintzarekin lotuta daudenean baina baita garbiketan, merkataritzan edo ile-apaindegietan ere, adibide batzuk aipatzearren.

Gure lanean lehentasunezko gaia izan da gaitzak ikustaraztea, uste dugu horien prebentziorako egin beharreko urratsa dela. Zenbaitetan, mutuek, hau da, tratamendu medikoaren eta kontingentzia profesionalen prestazio ekonomikoen ordainketaren ardura duten erakundeek, Osakidetza bideratzen dituzte prestazio horiek, ardura osasun sistema publikoari ezarrita. Horren ondorioz, jatorri profesionaleko gaitz horiek ez dira hala hartzen eta ohiko kontingentzian estaltzen dira.

Horrek lau ondorio kaltegarri eragiten dizkigu langileoi:

- Hori gertatzen zaion langileak murrizketa izango du prestazio ekonomikoetan.
- Lanetik eratorritako osasunari eragindako kalteen estatistikak ez dira benetakoak izango.
- Ohiko gaitz moduan estalitako laneko gaitzak ez dira prebentzio gaietan lehentasun izango.
- Osasun sistema publikoak beretzat hartzen dituenean tratamendu mediko horiek, mutuen ardura den karga ekonomikoa hartzen du bere gain.

Enpresa Txiki eta Ertainen Prebentzio Kulturarako Euskal Behatokiaren esparruan CCOOk egindako lanari esker ondorioztatu ahal izan da mutuek 2020an kontingentzia komunera bideratu zituzten gaitz profesionalen %50 inguru gaitz muskulueskeletikoetan zutela jatorria. Beraz, egoera horretan dagoen pertsonak sindikatura jo behar du aholkularitza eske behar diren izapideak eta/edo salaketak egiteko.



**Euskadiko CCOOko
Lan Osasun Kabinetea**

Afilia zaitez!

